



2008KO URTARRILAREN 31KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko urtarrilaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarra egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio eta Javier Moreno González de Lara.

Angel Hernandez Marzal eta Iñaki Saldaña Herrero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren esaten du eguneko gai zerrendatik kanpo bi mozio tratatzeko proposamena egiten duela presazko izaerako gisa sartuz osoko bilkuran. Bi mozioak berak aurkezten ditu Osoko Bilkura honetara eta bata Igortz Badiola Arratibelek izenpetutakoa da eta "Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako tortura larrien aurrean espainiar estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen torturarekin amaitzea helburua duen mozioa" du bere izenburua; eta bestea EAJ eta EBren izenean aurkezten dena da eta torturaren ingurua da baita ere.

Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (EAJ) eta aurkako hiru botuz (PSE, PP) mozioak tratatzea erabakitzen du.

I. AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko azaroaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Igortz Badiolak hitza eskatzen du eta alkateak baimenduta esaten du betikoa esan behar duela, hau da, hitzegiten duena herri honetako ordezkaritza dela eta hori erreflexatzea nahi dutela.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

...///...

III.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZA LANEN 13. EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hamahirugarren egiaztagiria luzatu du. Hamahirugarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI MILA HIRUEHUN ET ABERROGEITA HAMABI EURO eta BERROGEITA SEI ZENTIMotakoa ==== (176.352,46 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Serna zinegotziak (PSE) ea obra ondo al dihoan galdetzen du, bai epez bai desbi-derapenei dagokionean.

Alkateak erantzuten dio biaz, epek betetzen ari direla eta bestalde egiaztagiri honetan ez dela proiektuz kanpoko neurketarik ez preziorik.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hamahirugarren egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- O.H.Z. ETA E.J.Z.REN KUDEAKETARAKO FORU OGASUNAREKIN HITZARMENAK.-

Orain arte, horretarako izenpetutako hitzarmen bidez, udal honek, bai Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketan eta bai Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren kudeaketan, borondatezko eta premiamendu bidezko dirubilketak Gipuzkoako Foru Aldundian eskuordetuta zeuzkan. Horrekin batera zerga horien ikuskatze ahalmena ere Gipuzkoako Foru Aldundian eskuordetzen zen.

Aipatu ahalmen horiek berreskuratzearen egokitasuna kontsideratuz, 2007ko urriaren 25ean egindako osoko bilkuran hartutako akordio bidez, bi hitzarmen horiek bertan behera uztea erabaki zen.

Hala ere gai honen inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izandako elkarriketen ondoren, hitzarmen motaren bat mantentzea komenigarria ikusten da, besteak beste, bi erakundeen arteko informazio trukaketa eta informatika programa amankomuna erabiltzeak euskarria izan dezan, eta bai borondatezko dirubilketa, bai premiamenduzkoa, bai zergen ikuskatze ahalmena udalak bere gain hartzen ditueneko eranskinak dituen hitzarmenak izenpetu daitezke.

Hau horrela osoko bilkuraren aurrera ekartzen dira bere onarpenerako:

- 1.- I Eranskina. Lazkaoko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Lankidetza-Eskuordetza Hitzarmena Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketarako.
- 2.- V. Eranskina. Lazkaoko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Lankidetza-Eskuordetza Hitzarmena Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren kudeaketarako.

Bi hitzarmen hauek bere espedienteetan aurkitzen dira.

...///...



...///...

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, bi hitzarmen hauek onartu eta bere izenperako alkatea ahalmentzea erabakitzen du.

V.- SANTA MAGDALENA INGURUA BERRIRO HIRITARTZEKO PROIEKTUA FINANTZATZEKO DIPUTAZIOAREKIN HITZARMENA.-

Lazkaoko Udalak Santa Magdalena inguruaren birrurbanizazioari ekiteko asmoa du. Bestalde Gipuzkoako Foru Aldundia, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren bitartez, Gipuzkoako zenbait udalerritan hirigintza aldetik hondatutako hiri eta landa guñeak berreskuratzeko eta biziberritzeko politika gauzatzen ari da.

Hau horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiari Santa Magdalenako birrurbanizazio proiektuaren finantzaketarakako laguntza eskatu zaio eta honek proiektu hau, 2007ko iraileko data daraman dokumentuaren arabera, hau da, hiruehun eta berrogeita hamar mila (350.000 €) euroko zenbatekoz, bere osotasunean finantzatzeko aukera eskeini du, horretarako bi erakundeen arteko lankidetzat hitzarmena izenpetuz.

Hau horrela, Osoko Bilkuraren aurrera ekartzen da hitzamen hau, bere espediente-an dagoena, Osoko Bilkurak bere onarpena eman dezaion.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du kezkatu egiten duela hitzarmen honen izenpetzeak proiektua egikaritzera Santa Magdalena gunean eraiki asmo dagoen garajeen proiektua ez ote duen nolabait ere baldintzatuko.

Alkateak erantzuten dio ez daukala zergatik baldintzaturik.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Santa Magdalena inguruko birrurbanizazioa aurrera eramateko lankidetzat hitzarmena onartzea.

2. Hitzarmen hau izenpetzeko alkatea ahalmentzea.

VI.- KUTXAKO GOBERNU ORGANUETAN PARTE HARTZEKO UDALEN BILKURA PROPOSAMENA.-

Alkateak bertaratutakoei adierazten die aipaturiko erakundean ospatuko diren hauteskundeak direla eta, berauetan partehartu eta honela Gipuzkoa Donostia Kutzako Gobernu Organuetan ordezkari izateko aukera dagoela Udalen Bilkura medio.

Hau horrela Gipuzkoa Donostia Kutzako Gobernu Organuen izendapenean parte hartzeko Tolosa, Oñati, Mutriku, Getaria, Mendaro, Ataun, Aia, Lazkao, Hondarribia eta Elgoibargo udalek osatutako udal elkarteak onartzea proposatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) galdetzen du ea ordezkari horrekin ze onura aterako duten lazkaotarrek akordio honekin.

...///...

...///...

Alkateak erantzuten dio Lazkaoko Udalak Kutxan ordezkaritza edukitzeak ekar lezakeen onura izango dutela.

Serna zinegotziak esaten du beraiek ez diotela ikusten onura hori eta aurka bozkatuko dutela.

Proposamena bozketara jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ), aurkako 2 botu (PSE-EE) eta abstentzio batez (PP) Gipuzkoa Donostia Kutxako Gobernu Organuen izendapenean partehartzeko Tolosa, Oñati, Mutriku, Getaria, Mendaro, Ataun, Aia, Lazkao, Hondarribia eta Elgoibargo udalek osatutako udal elkarteak onartzea erabakitzen du.

Une honetan Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratu da

VII.- BI MOZIOAK.-

Igortz Badiolak aurkeztutako mozioak honela dio:

"UDAL OSOKO BILKURARA

Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatuak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen MOZIOA aurkeztean da,

2008ko urtarrilaren 6an, goizeko 10ak aldera, Espainiar Guardia Zibileko GAR delakoak Igor Portu Juanena eta Mattin Sarasola abxilotu zituen Arrasaten. 18 ordu beranduago Igor Portu Donostia Ospitaleko UCIn ingresatu behar izan zuten. Txosten medikoaren arabera saihests bat hautsia du, saihests hautsi horrek ezkerreko birika zulatu dio eta, ondorioz, pleura eta odol isuri larria izan du. Gainera, larruazalaren azpian enfisema handia du -azala puztua- ornoetatik pelbiseraino. Disnea era badu Portuak -arnasa hartzeko zailtasuna-, hematoma higadura eta urradura ugari belaun eta orkatiletan, eta ubeldua eta odol bildua ezkerreko begian. Mattin Sarasola, Guardia Zibilaren esku eta inkomunikaziopean zegoela, torturatzen jarraitzen zutela jakin genuen. Forenseak berak jasotakoaren arabera ubelduak eta makatuak zituen gorputzeko hainbat ataletan, hala nola, eskuineko belarrian, bi besoetan, bizkarraren goialdian, toraxaren eskuinaldean eta ezker alboan.

Poliziaren bertsio ezberdinek, Rubalcaba ministroaren egiaztapen lotsagarriak, Zapatero presidentek Guardia Zibilari agerturiko babes osoak, argi eta garbi agertzen zaigun Tortura kasu larri honen aurrean ez dute inolako sinesgarritasunik. Zoritxarrez luzea da Euskal Herriak jasan behar izan duen Torturaren historia, frankismo ilunetik jarraipen osoa izan duena. 1978tik aurrera 7.000 euskal herritar baino gehiagok salatu dituzte Guardia Zibila, Espainiar Polizia Nazionalea edota Ertzaintzaren eskuetan jasandako Torturak. Joxe Arregi, Esteban Murueta Goiena, Mikel Zabalza, Lasa eta Zabala, Gurutze Iantzi, Xabier Kalparsoro, Torturak erahildako euskal herritarren zerrenda horren lekuko.

Espainiar Estatuak etengabe eta sistematikoki erabili izan du eta erabiltzen du Tortura Euskal Herriko eskubideen aldeko borroka eta lan ezberdinetan antolatutako herritarren aurka. Argia ikusi duten kasuak, proiektio mediatikoa izan dutenak, salbuespenak ditugu.

...///...



...///...

Unai Romano, Egunkariako Atxilotuak, ... izeberg handi baten punta txikia besterik ez dira. Milaka tortura kasu dira isiltasunak ezkutatuak.

Tortura Estatu batek bere indar eta inpunitate osoz herritar babesgabetuaren aurka ezartzen duen bortizkeria da. Torturaren atzean Estatuko aparatu guztiak dadude, polizia indarrak tortura gauzatzen, gobernua agintzen, legislatiboa tortura ahalbidetzen duten legeak onartzen, justizia aparatuak inpunitatea bermatzen. Guardia Zibilak PSOEn gobernuaren aginduz torturatzen du, espainiar kongresuak onetsitako inkomunikazioa erabiliz, Audientzia Nazionala inpunitatea bermatzen du.

Baina bada beste elementu bat Tortura posible egiten duena. Espainiar segurtasun indarren jardura irmoa eskatzen denean, espainiar Justiziaren jardunari babes osoa agertzen zaioenean, Torturari bidea irekitzen zaio. Eta Tortura kasuak ezkututzen direnean, torturatuen testigantza eta salaketak isilarazten direnean, Tortura kasu berriak posible egiten dira. Horren arabera neurtzen da alderdi politiko, eragile ezberdin zein komunikabideek Torturaren aurrean duten ardura, baita Torturarekin amaitzeko duten aukera ere.

Espainiar Estatuak, PSOEn gobernuak, Euskal Herriaren aurka darabilen estrategian Torturaren erabilera gordintzea eta areagotzea erabaki du, une politiko batetan eta helburu zehatzarekin: Euskal Independentismo bortizki kolpatzea. Atxilotetak, epaiak eta zigorrak, legez kanporatzeak, baita Torturak ere, independentziari ateak itzeko, konponbidea ukatzeko, Euskal Herriaren eskubideak jazartzeko erabiltzen ditu.

Abenduaren 1ean PSOEn Gobernuaren estrategia errepresioari babes osoa agertu zioten hainbat alderdi politikok Madrilgo Kongresuan. Egun batzuk geroago ezagutu genuen Gorka Lupiañez euskal herritarren Tortura testigantza beldurgarria, ezkutatua eta isilarazia izan zen. Urtarrilaren hasieran Igor Portu eta Mattin Sarasola izan dira Tortura latzak jasandituztenak. Hurrengo? Torturaren sekuentziari amaiera jarri behar zaila, behingoz eta betiko. Euskal Herrian Torturarekin amaitzeko oihua ozen eta argi entzuten dugu, eragile bakoitzari dagokio bere ardurari eutsi eta Torturarekin amaitzeko neurriak hartzea.

Gauza bakoitzak du bere izena, hau Tortura da. Eta gauzak diren moduan esan behar dira Tortura sistematikoki eta helburu politikoekin erabiltzen duten Espainiar estatua ez da zuzenbide Estatu bat, Espainian ez dago demokraziarik, ez dago Euskal Herriarentzako ezta euskal herritarrentzako eskubide aitortzarik. Ez da epelkerietarako garaia. Tortura argi salatu beharrean "zalanitzak, zantzuak, kontraesanak, ..." aipatzeak ez du baliorik. Zertarako balio du Espainiar Gobernuari edo Justizia aparatuari "kasu hau" argitzea eskatzeak? Espainiar Gobernuak gezurren bitartez estali nahi izan du Tortura kasu hau, agerikoa izanik ere, poliziaren bertsioen aurrean hamaika zantzu eta lekukoen testigantza izan arren. Espainiar Justiziak inpunitatea bermatzeko neurriak besterik ez ditu hartu, Audientzia Nazionala atxilotuen inkomunikazioa espetxean luzatuz argi agertu denez.

Torturarekin amaitzeko badira gaur bertan hartu daitezkeen benetako neurriak, Espainiar Estatuari, PSOEn gobernuari, euskal herritarren aurka Tortura erabiltzea zailduko diotena. Tortura salatu eta babesgabetu behar da, torturatzen dutenak argiki salatu behar ditugu, tortura posible egiten duen isiltasuna behingoz apurtu behar da. Baina Torturarekin betiko amaitzeko behar den neurria bestelakoa da, Euskal Herriak bere eskubideak errespetatuak izan behar ditu, Euskal Herriak marko demokratiko bat behar du, euskal herritar

...///...

...///...

bat espainiar zein frantziar polizi indarren eskuetan torturatua izatea ezinezko egingo duen marko demokratiko bat.

Hau guztia dela eta honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:

1. Udal honek irmoki saltzen ditu Igor Portuk eta Mattin Sarasolak Guardia Zibilaren esku jasan dituzten Tortura latzak, baita azken urte luzeetan pilatu diren milaka tortura kasuak ere.
2. Udal honek argi agertu eta salatu nahi ditu Tortura kasu honen atzen dauden ardura guztiak: tortura erabiltzen duten espainiar polizi indarrak, torturak agindu edota baimentzen duen espainiar Gobernuak, inpunitatea osoa eskaintzen dion Justizia aparatua, baita Tortura kasu hau isilarazten edo justifikatzen saiatu diren alderdi politiko zein komunikabideak ere.
3. Udal honek, euskal herritarrek espainiar polizi indarren eskuetan jasaten duten Torturarekin amaitu asmoz honakoa nabarmendu nahi du: euskal herritarrek torturatzen dituzten espainiar polizi indarrek zein inpunitatea bermatzen duen espainiar Justizia aparatua ez dute Euskal Herrian inolako zilegitasunik. Hortaz, hauei babesak agertzea Tortura ahalbidetzea besterik ekartzen ez duenez, eragile politiko, sozial zein sindikalei babesik ez ematea eskatzen diegu eta behingoz Torturarekin amaitzeko jarrera argia eta beharrezko neurriak har ditzatela.
4. Udal honek bereziki salatu nahi du PSOE alderdiak osatzen duen espainiar Gobernuak Tortura kasu honi dagokionean agertu duen jarrera. Rubalcaba Barne Ministroa zein Zapatero Presidentea gezurretan aritu dira Tortura hauek estali nahian, Guardia Zibilarri erabateko babesak agertu eta inpunitatea bermatua izango dela agindu dute.
5. Udal honek bat egiten du euskal herritarren gehiengo zabalak eskatzen duenarekin: euskal herritarrei aplikatzen zaigun Salbuespen legediaren amaiera, inkomunikazioaren amaiera, Audientzia Nazionalaren desagertzea. Bide beretik, udal honek bat egiten du Torturaren Aurkako Taldeak aurkeztu eta Torturarekin amaitzea helburu duen 9 puntuko zerrendarekin.
6. Azkenik, udal honek, Tortura helburu politikoarekin erabiltzen dela salatu nahi du, euskal independentismoaren aurka eta Euskal Herriko eskubideen ukazioa iraunkortu asmoz. Hortaz, udal honek Torturarekin, eta euskal herritarren eskubide urraketa guztiekin behingoz eta betirako amaitzeko marko demokratiko bat behar dela aldarrikatzen du. Euskal Herriaren eskubideak aitortu eta euskal herritar guztiok gure etorkizuna libreki eta aukera politiko guztien artean erabakitzea bermatua izango dugun marko demokratikoa, hain zuzen ere.
7. Onartutakoa herritarrei zein komunikabideei helaraziko zaie.

Euskal Herrian, 2008ko urtarrilean"

EAJ eta EBk aurkeztutako mozioak honela dio:

...///...



...///...

"Geldialdia da Euskadiren egoera politikoak bizi duena. Bake prozesua hautsi egin da, ETAren atentatu mehatxua egia da berriro ere. Lehendakaria eta beste zenbait politikari auziperatuak dira, geure gizartearen zati baten ordekaritza politikoa legez kanpo dago eta ordezkaritza horren lider ugari espetxeratuak. Epaitegietan prozesu ugari dituzte ireki. Kale borrraka indarrean.

Etengabeko oinarrizko eskubideen zapalketek -torturek, lege kanporaketek eta adierazpen eskubideari erasoek, pertsona nahiz ondasunen aurkako biolentziazko jardunek- ez diote inolaz ere laguntzen, gure herriak hain beharrezko duen soluzioaren bilaketari. Soluzioak baitu batetik oinarri, ezezkoa oinarriko eskubide ororen zapalketari; ezezkoa, bizitza, giza segurtasuna, adierazpen eskubidea, elkartze eskubidea e.a. ... zapaldu bide duen eraso orori; eta baiezkoa, eskubide horien guztien alde egiteari. Eta oinarri ere behar ditu, adostasun politikoaren bilaketara garamatzaten ekimen oro, gure herriak bizi duen gatazka politikoari irteera ematea helburu, herriari demokratikoki berezkoa zaion erabakitze eskubide horren errespetuzko jokabideen bideetatik.

Zuzenbide Estatu Demokratiko batekin dira tortura bateraezinak. Tortura susmorik txikiena ere argitu behar dela uste dugu; argitu eta salatu, giza eskubideen zapalketa handi baitira.

Horiek horrela, Udal honen plenorako hona gure ekarpenak, berauen eztabaida eta onarpenerako.

1. Estatuko Gobernuari Lege Antiterrorista bertan behera uzteko diogu eskatzen; Lege Antiterrorista eta abxilotuen isolatzea.
2. Azken egunotan, Estatuko Segurtasun indarrek abxilotua, salatu berri dituzten tortura jardunen aurrean, Udal honek bere kezka du azaltzen eta gertatua lehen bai-lehen - eta eraginkorki- argi dadin eskatzen, hartu beharreko erantzukizun guztiei aurre egingo da.
3. Tortura nahiz tratatu txarren aurka Udal honek luzatuak dituen adierazpen guztiekin bat egin nahi dugu berriro ere; pertsona ororen giza eskubide guztien defentsarako konpromisoarekin bat egiten, eta ezein biolentzia eta estorsio jarrerei uko egiten.
4. Isolamendu egoerari bide ematen dio arautegi berezia indargabetzeari dei egiten diogu, abxilotuei prozedurazko bermeak baitizkie gutxiesten.
5. Isolamendu egoeran eta torturapean irekiak dituzten epai-prozesu guztiak, bertan behera utz ditzan eskatzen auzitegi nazionalari.
6. Tortura saihestu eta saihespen tresnen ezarpenerako, nazioarteko erakunde zenbaitzuek -batik bat ONUtik kontalari bereziak- esandakoak praktikara ekarri ditzan diogu eskatzen espainiar gobernuari."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beti defendatuko dutela tortura ez dela legezko praktika eta susmorik baldin badago aztertu egin behar dela eta tortura egon dela

...///...



...///...

frogatuko balitz zigortu egin behar dela. Dena den kasu honetan mozio hauekin erabilpen politikoa egiten ari zela eta ondorioz bi mozio hauen aurka bozkatuko dutela.

Lehenengo mozioa bozketan jarri eta honako emaitza jasotzen du: alde 0, aurka 9 (EAJ, PSE, PP), abstentzioak 3 (Felix Urkola, Xanet Barreras eta Lurdes Garmendia), beraz mozioa ez da onartzen.

Bigarren mozioa bozketan jarri eta honako emaitza jasotzen du: alde 5 botu (EAJ), aurka 3 botu (PSE-EE, PP) eta abstentzioak 3 (Felix Urkola, Xanet Barreras eta Lurdes Garmendia)

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak zenbait gaietarako buruzko informazioa ematen du. Alde batetik, esaten du, Ogasun eta Pertsonaleko Batzordean adierazi zen bezala, lanpostuen baloraketa azterketa egiteari ekingo zaiola; bestalde 1999 urtean hasitako ohiturari jarraipena emanez, udal zinegotzi izan direnei domina ematea egingo dela hurrengo bilkuran; azkenik, esaten du, hauteskundeak direla eta, datorren otsailaren 11n, astelehena, iluntzeko 7etan, ez-ohiko osoko bilkura egingo dela, hauteskunde mahaietako partaideen zozketa egiteko.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak eman ondoren, Angel Etxalax esaten du aktetan hitzegiten duenaren ordezkariak jasotzeko buruzko eztabaidan, idazkariak plenoak esandakoa jaso behar duela.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeitaz gertu direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

